

Arabako zahar egoitzen hamar erabiltzaile hil dira, COVID-19ren positibo zirenak

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 7a. Datuen azken eguneratzean, igandean, apirilaren 5an, Arabako zahar egoitzen hamar erabiltzaile hil ziren, COVID-19ren positibo zirenak. Azken aste hauetan zenbait egoiliarren osasun egoera okerragora joatearen ondorio dira datu horiek.

Koronabirusak sortutako osasun krisia hasi zenetik, guztira 82 pertsona hil direla kontabilizatu da. Heriotza gehienak (46) ospitale zentroetan gertatu dira, eta 36, egoitzetan.

Halaber, guztira 363 egoiliar koronabirus kasu positiboak dira. Kasu horien gorakada bat dator azken egunetan tamaina handiagoko hainbat egoitzatan egindako testen gorakadarekin, eta datozen egunetan ere egingo dira test horiek

Egoitza zentroek pertsona horietako 34 ospitaleetara bideratu dituzte, haien egoera osasun larriarengatik, eta koronabirusa duten pertsona gehienak zaintzeaz arduratzen dira. Kasu positiboetarik, 221 Araban diren zentro pribatuen erabiltzaile dira, 136 foru egoitzetan bizi dira eta gainerako 6ak, gure lurraldeko udal zentroetan.

Ezintasunen bat dutenentzako egoitzetan ez da aldaketarik izan.